

# Tokiko Agenda 21eko Foroaren tailerraren akta

2015eko azaroaren 12an, 18:30etik 20:20ra, Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan.



Legazpin hiri-hondakinei buruz  
hitz egiten

Gaurko Agenda 21eko Foroak Legazpiko hiri-hondakinak izan ditu hizpide. Eta helburu zehatzak izan ditugu.

Hau nahi izan dugu:

Gaurko  
3 helburu

1. Legazpin hiri-hondakin mota desberdinen gaikako bilketaren eta haien sorreraren datu zehatzak ezagutzea;
2. Hobetzeko aukerak non dauden identifikatzea; eta
3. Gaikako bilketa-datuak eta berrerabilpena hobetzen joateko Udalak susta ditzakeen neurriak proposatzea.

Emaitza? Tailer interesgarria eta oso emankorra izan da.

- Datu pila jaso ditugu eta horiek errekonozimendua eta zorionak ematea merezi du: Legazpi eta legazpiarrok ondo egiten ari gara. Gero eta hiri-

hondakin gutxiago sortzen dugu eta, era berean, gora doa gaikako bilketa.

- Hobe ditzakegun alderdiak eta portaerak partekatu eta jarri ditugu agerian.
- Eta Agenda 21eko Foroak horretan lagundu nahi duela eta horretarako borondatea eta konpromisoa duela ikusi dugu.

Ikus dezagun, segidan, nola joan den gaurko tailerra.

## ■ Nortzuk? Parte hartu duen taldea

**30 pertsona,**  
13 emakumezko  
eta 17 gizonezko,



Talde handia, anitza eta gaia ezagutzen duena eta gai horretan interesa duena. Hauek izan dira parte hartzaileak:



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



M<sup>a</sup> Jose Cantero – Arantza Arizmendi – Lucia Areizaga – M<sup>a</sup> Cruz Lizarazu – Montse Vallejo – Manuel Fernández (Nagusilan) – Pilar Makibar – Rosa Makibar – Rafael Gomez (Buskabaso) - Jose Luis Cid – Floren Gutierrez – Iñigo Imaz (zinegotzia) – Elvira Goñi – Iñaki Mauleon (Domingo Agirre eskola) – Roberto Alonso (zinegotzia) – Edurne Huesa (Legazpiko Ingurugela) – Bittor Puente (LAB) – Alberto Bezunarte (zinegotzia) – Igor Urrate – Xabier Baztarrika (Buskabaso) – Oscar Valbuena (zinegotzia) – Kepa Urzelai (zinegotzia) – Juan Carlos Agirre – Juan Pedro Agirre – Josu Saez de Nanclares – Koldobike Olabide (alkatea) - Eric Galvez (zinegotzia) - Inma Hernandez (Industria, merkataritza, turismo eta ingurumen zerbitzuko teknikaria) – Iciar Montejo eta Zorione Aierbe (Prometea), tailerra dinamizatzeko lanetan.

Eskerrik asko guztioi!

## ■ Berriak

Agenda 21eko Foroaren tailerretan egiten ohi dugunez, lehenengo minutuetan azkeneko berriak azaldu dira eta oraingoan berri horiek eguneko aztergaiarekin dute zerikusia: hondakinak.

Horrela, Inma Hernandez industria, merkataritza, turismo eta ingurumen teknikariak laster –azaroaren 21etik 29ra– Legazpin eta eskualdean, **hondakinen prebentziorako Europako Astearen** barruan burutuko diren bi ekintzen berri eman digu.

2 berri:

## 1. “Etxeko Ura” kanpainaren sustapena

Azkeneko urtean, kanpaina honen barruan kanilako ura eskaintzen dute eskualdeko 24 jatorriko euren eguneko menuarekin. Ekimenaren helburua hirukoitza da:

- Kanilako uraren kalitatea agerian jartzea.
- Plastikozko botilek sortzen duten ingurumen-inpaktua murriztea.
- Kontsumo arduratsuagoa sustatzeko ohituren aldaketa bultzatzea.



Datozen asteetan ekimen berriekin osatuko da kanpaina; horrela, adibidez, uraren gaineko galdeketa egingo da edo iragarki bat zabalduko da Urola telebistan.

Legazpin 7 dira kanpaina honetan parte hartzen duten establezimenduak: Aitxuri – Katilu – Ibai-ondo – Mandiola – Mirandaola – Elizondo – Goierri.

## 2. Kontzientziazio kanpaina beirazko ontziak biltzearen gainean

Ecovidrio enpresaren eta Sasieta Mankomunitatearen eskutik, kanpaina hori kalean –Euskal Herria plazan– burutuko da azaroaren 27an. Hauek dira helburuak:

- Gaika bilduko diren beirazko ontzien kantitatea eta kalitatea gehitzea.
- Herritarrek izan ditzaketen zalantzak argitzea, haiengandik gertu egonda eta erantzuteko prestutasuna azalduz.



## ■ Eguneko gaia: hiri-hondakinak Legazpin

### Abiapunturako hainbat datu

Hasteko, Legazpin hiri-hondakinaren sorreraren gaineko eguneko egoera eta hiri-hondakinaren sorreraren eta gaikako bilketaren bilakaera islatzen dituzten datu batzuk eman dira ezagutzera. Informazio hori Sasieta Mankomunitateak osatu eta eskaini digu eta honako loturetan ikus daitezke: <http://www.legazpi.eus/es/bizi-2/residuos/resultados> (Legazpiko Udalaren webgunea) eta <http://www.sasieta.eus/euskara/mankomunitatea/datuak> (Sasieta Mankomunitatea).

Laburbilduz:

Hiri-hondakinak  
Legazpin  
DATU ADIERAZGARRIAK


Sortze datuak:

- 2014an legazpiar bakoitzak, batzaz beste, 0,7 kilo hiri-hondakin sortu zituen.
- Bilakaera positiboa da, azkeneko urteetan gero eta hiri-hondakin gutxiago sortu baita.

### Generación de residuos urbanos por habitante y día


Definición: Generación de residuos urbanos por habitante y día

Tendencia deseada: DISMINUCIÓN



## Gaikako bilketaren datuak:


- Datuak eta bilakaera positiboak dira: 2015ean, sortutako hiri-hondakin guztietatik, % 82 gutxi gorabehera gaika jaso da, ondoren birziklatzeko; beraz, hondakinen % 18 inguru – errefusa– bukatzen du zabortegian.
- Hondakin-motaren arabera: sortutako hondakinen 100 kilo bakoitzeko,
  - 18 kilo errefusa da.
  - Gaika jasotako 82 kiloak honela banatzen dira:
    - Beira: 13 kilo
    - Papera-kartoia: 17 kilo
    - Ontzi arinak: 14 kilo
    - Organikoa: 35 kilo
    - Erabilitako arropa: 2 kilo
    - Olio: kilo bat baino gutxiago
- Gaika jasotako % 82a, asko da ala gutxi da? Mankomunitatean gaikako bilketaren batz bestekoa % 59 da. Bestalde, Gipuzkoako hiri-hondakinak kudeatzeko Plan Integralak lortu beharreko helburuak hauek direla jasotzen du: 2016an % 60 eta 2020an % 75. Aldiz, Eusko Jaurlaritzaren planean 2020an % 75eko gaikako bilketa lortzea proposatu da.



## Gestión de residuos: reciclaje y recogida selectiva

Definición: Porcentaje de residuos que se reciclan

Tendencia deseada: AUMENTO



Eskainitako informazioak **ekarpen interesgarriak sorrarazi ditu taldean**. Hona hemen ekarpen horiek:

Nola baloratzen ditugu datuak?

- "Interesgarria izango litzateke Sasieta Mankomunitateari eskualdean sortzen diren hiri-hondakinen sorreraren **bilakaera datuak** eskatzea; horrela, alderatu egin dezakegu Legazpin antzematen den beheranzko joera eskualdean gertatzen denarekin."
- "Egiantan, organikoaren berreskurapen-datuak gaikako bilteta datuak baino hobetoak dira; izan ere, hor ez da Legazpin -banaka edo taldeka- **konpost bihurtzen den organikoa** sartzen eta, beraz, organiko hori ez da gaika biltzeko zirkuituan sartzen".
- "Zalantza bat: ECOVIDRIO enpresak egingo duen eta "berriak" atalean azaldu den kanpainarekin jarraituz, egin al da **ontzi arinen gaineko kanpaina espezifikoaren bat?**" Udaletik behintzat ez dela egin erantzun da.

## Hausnartzea eta talde lana

Behin datuak ezagutu eta gero, galdera horiek hausnarketa eragin dute taldean eta Agenda 21eko Foroaren talde lanean:

Hausnarketarako  
eta talde  
lanerako  
galderak

- Hondakinak bereizteko eta gaika biltzeko arduran hobetzen jarraitzeko:
  - i. Zure esperientziatik abiatuta, zein hondakin-motek dute hobetzeko tarte handiagoa?
  - ii. Hondakin-mota horietan, zer neurri har daitezke udaletxean eraginkorrak izan daitezkeenak?
  - iii. Pentsa norbaitek oraindik ez duela behar bezala bereizten: zer neurri har ditzake Udalak hobeto egin dezan laguntzeko?
- Etxean berrerabilpena handitzeko helburuarekin:
  - i. Lagungarriak izan daitezkeen zer neurri har ditzake Udalak?
- Hobetzeko aukera nagusiak non dauden azter daiteke; eta
- Gaikako bilketaren datuak hobetzeko eta berrerabilpena sustatzeko Udalak bultzatzen ditzakeen neurriak proposa daitezke.

Horrela, urratsez urrats aurrera egin dugu: norbanakoaren esperientziatik abiatuta eta, hortik, Udalak bultzatzen ditzakeen neurriak proposatzera, hondakinaren **4 eginbeharretan aurrera egiten jarraitzeko: murriztu, berrerabili, berreskuratu, birziklatu.**





Segidan talde lanak eman duena ikusiko dugu.

## Bereizte-lanetan eta gaikako bilketan hobetzen jarraitzeko:

### i. Zure/zuen esperientziatik abiatuta, **¿zein hondakin-motek dute hobetzeko tarte handiagoa?**

Taldearen iritziz, eta datu oso onak ditugula aintzat hartuta, **hobetzeko aukera** hauek ikusten dira:

Taldearen  
iritzia:

- **Batik bat ontzi arinetan hobetu daiteke.**
  - Oraindik handiak dira zalantzak, adibidez ontzi mota hauekin: zer egin behar da ontzi mistoekin (plastikoa eta beste material batzuk nahastuta dituztenak); plastiko-mota desberdinekin; jostailuekin,.... Zalantzaren aurrean, batzuetan errefusera botatzen ditugu horiek.
  - Gaika biltzen den kalitateari dagokionez: zein da errefusatutako portzentajea? Bereizten duguna, ondo bereizten al dugu?
  - Gogoratu beharra: batik bat adineko pertsoneri, edukiontzi horian zer sartu behar den aldian-aldian gogora ekartzea komeni da.
- **Errefusean ere -birziklatu ezin dena- hobetu daiteke.**
  - Oraindik bereizten ez duen eta dena nahastuta botatzen duen jendea dago -orain arte lurrean utzitako poltsetan-.
- **Garbigunearen erabilera eta traste handien asteroko bilketa ere hobetu daiteke.**
  - Jendeak oraindik ez du oso garbi zer eraman daitekeen garbigunera; gainera, ondo egongo litzateke zerbitzu hori zabaltzea.
  - Traste handiak astero jasotzeko egiten den bilketari dagokionez, badaude zerbitzu hori gaizki erabiltzen duten pertsonak; adibidez, atera behar ez denean ateratzen dira gauzak,.....

Horrezaz gain, beste hondakin-moteki buruz dauden zalantza zehatzak eta ekarpenak partekatu ditugu:

- **Papera eta kartoia**
  - Zalantzak sortzen dira eta sarritan ez dakigu beste material batzuekin nahastuta -plastikoarekin adibidez- datozen paper eta kartoiekin zer egin.
  - Eta zenbaitetan jokabide desagokiak antzematen dira; adibidez, batzuk papera eta kartoia edukiontzi urdinean uzten dute baina plastikozko poltsa batean sartuta.

- **Beira**

- Zalantza: Utzi daiteke botila bere kortxoarekin? (Erantzuna: hobe kentzea, tratamendu-lantegian ez dutelako horiek kentzeko sistemarik).

- **Erabilitako arropa**

- Zalantzak: Utzi daitezke erabilitako sukaldeko trapuak? Eta oinetako zaharrak? Erantzuna: bai.

- **Erabilitako olioia**

- Zalantza: Zer egin erabilitako olioaren hondarrek? Erantzuna: harraskatik ez da oliorik bota behar; beti pote batera eta, hortik, edukiontzira.

Oro har,

- Zalantza: herrian zein da lortu beharko genukeen **gaikako bilketaren balio optimoa**? Edo beste modu batera esanda, sortzen denetik zenbat da, bai edo bai, errefusa?

## ii. Horren haritik, **¿ze neurri har ditzake Udalak zuentzat erabilgarriak izan daitezkeenak?**

- **Sentsibilizazioa eta komunikazioa:**

- Ekarpengune bakoitzean **informazio kartelak** jar daitezke Sasietako gidarekin: "edukiontzi bakoitzean zer utzi behar den argituz". Eta telefono-zenbaki bat eman daiteke zalantzak argitzeko.
- **Astero ostegunetan** egiten den **bilketa bereziari buruz kartelak** jar daitezke, zerbitzu hori behar bezala erabil dadila bultzatzeko.
- **Aldian-aldian sentsibilizazio kanpainak** egin daitezke, ondo bereizteko argibideak emateaz gain, kate osoaren berri emango dutenak: hondakin horiek non eta nola sortzen diren, sorburuan bereiztearen garrantzia, edukiontzian utzi eta gero hondakinekin zer gertatzen den, Udalarari horrek ekartzen dion kostua... "Mito" askorekin bukatu behar da.

Lehentasunezko hondakin-motak:

- Ontziak
- Iraungitako botikak
- Produktu arriskutsuak –eta garbiguneraren funtzioa-
- Paperezko mukizapiak eta paper-zapi bustiak

Formatu eta euskarri desberdinetan: kalean, Urola telebistan, gaiari buruzko filmak eskainiz...

Propuestas  
del grupo

- Hondakinen gaineko **prestakuntza-talde bereziak** sor daitezke. Auzoka antola daitezke edo kolektibo bereziei zuzendutakoak –adineko pertsonak,...–. Horrela, adineko pertsonen sistema nola erabiltzen den eta nola egin behar duten adierazi behar zaie sarritan.
- Udalak, ontziak egiten dituztenei ontzi hori zein edukiontzian utzi behar den ontzian bertan adieraz dezatela eska diezaieke, horretarako erraz ulertzeko moduko piktogramak erabiliz.
- **Enpresetan:**
  - Enprekin lan espezifikoa egin daiteke, haien lantegietan sortzen diren hiri-hondakinak behar bezala bereiz ditzatela bultzatzeko.
- **Garbigunea:**
  - Garbiguneak eskaintzen duen zerbitzua zabaldu egin daiteke, udalerrian bertan **bi garbigune txiki** sortuz. Debagoienan badago horrelako esperientziaren bat. Legazpin, industrialdean badago horretarako egokia den gunea.
- **Edukiontzien sistema eta txartelak:**
  - **Txartelak** –organikoaren edukiontzia eta errefusarena– **bateratzeko aukera** azter daiteke, haien erabilera errazteko.
  - Ba al dago aukerarik edukiontzia **egokitzeko** minusbaliotasunen bat duten pertsonen erabil ditzaten?
- **Bereizten denaren kalitatea ezagutu:**
  - Hondakin-mota bakoitzetik jasotzen dena azter daiteke bereizi denaren kalitatea ezagutzeko eta, horrekin, **errefusatutakoaren indizea** ezagut daiteke; hau da, hondakin-mota bakoitzeko modu okerrean utzitako hondakinak ezagutuko ditugu.

iii. Azkenik, pentsa **norbaitek oraindik ez duela behar bezala bereizten: zer neurri har ditzake Udalak** aurrerantzean hobeto egin dezan laguntzeko?

Taldean bildu diren iritzien arabera,

- **Errefusa da gakoa eta hari erreparatu behar zaio**, oraindik dena nahastuta botatzen duen jendea dagoelako eta “ez da ezer gertatzen”.
- Beraz, **erronka identifikatzea eta bereiztea lortzea da:**
  - Ongi bereizten dutenei eta errefusa gehien murrizten dutenei, modu batera edo bestera hobariak eskaintzeko.

Taldearen  
proposamena

- Gaizki egiten dutenak zigortzeko eta jokabide hori alda dezatela lortzeko.
- **Nola?** Ideia batzuk:
  - Ondo eta gaizki egiten dutenen artean bereizteko:
    - o Ontzi txikien sistemarekin aukera dago horretarako.
    - o Edukiontzien kasuan, zehaztu egin beharko da nola egin, kontrol bat eramatea ezinbestekoa delako: ordaindu beharreko banan-banako eta barra-kodea izango duten poltsekin? Presio kanpaina eginez, Udaletik ohartarazteko eskutitza bidaliz? (Zaila ikusten da).
  - Hobariak emateko eta/edo zigortzeko:
    - o Bereiztea posible izango balitz, **banan-banako hondakin-tasa** bat planteatu zitekeen, gastu orokorreko atal batekin eta beste atal bat aldatzeko, sortutako errefusaren edo hondakin-mota bakoitzean sortutako errefusaren arabera. Gaur egungo urtasaren parekoa izango litzateke, gutxien kontsumitzen duenari hobaria ematea lehenesten duena.

### Helburua, etxean berrerabilpena handitzea denean:

- **Udalak ze neurri har ditzake,** lagungarriak izan daitezkeenak?

Agenda 21eko Foroak katearen hasierarako proposamenak edo har daitezkeen konponbideak lehenesten ditu, helburu nagusia hondakinak murriztea baita:

- **Sorburuan murriztea:**
  - Udalak ekoizpen prozesuetan **ontzi gutxiago sor** dadila bultzatzeko ahalegina egin dezala.
  - **Protesta ekintzak** egin daitezke, beharrezkoak ez diren ontzien bolumena agerian utziz –supermerkatuetan egin diren kanpainen antzera, bilgarriak eta ontziak bertan kenduz eta bertan utziz.
- **Berrerabilpena:**
  - **Konpost egitearena** biziki sustatzea –banaka edo taldean-.
  - Artikuluak **konpontzeko tailerrak** jartzeko formulak aztertzea; beste herrialde batzuetan berrikuntza sozialaren adibideak daude.
  - Bultza al daiteke **ontziak itzultzea**? Lehen egiten genuen eta herrialde askotan emaitza onekin mantentzen da jokabide hori.
  - Adibide interesgarri bat: Noain-Elortzibarren urtero antolatzen den "Zacatín" izeneko ekimena. Dirurik gabeko **trukeko azoka**

Taldearen  
proposamenak

da; bertan, nahi duenak etxean dituen eta erabiltzen ez dituen gauzak utzi ditzake edo behar dituenak hartu.


- **Edukiontzi bereziak** jartzea, hondakin zehatzak bertan uzteko, garbigunera joan beharrik gabe. CDak adibidez.

Jaso ditugun ideia eta proposamen guzti horiei azken gogoeta garrantzitsuak gehituko dizkiegu:

Taldearen gogoetak

- "Hondakinak modu egokian murriztea eta kudeatzea norberaren borondatearen baitan dago; **gizalege eta heziketa kontua da**. Horren haritik, azkeneko hilabetetan desobedientziarako izandako deiek ez dute lagundu."
- "Bereizi egin behar ditugu hondakinak eta politika; helburu partekatuekin jokatu behar dugu."

Eta gogoeta horiekin osatzen dugu Agenda 21eko Foroan partekatu dugun ibilbidea eta solasaldia. Hona hemen nola geratu den hori islatuta:



Lan bikaina!



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



### ■ Eta bukatzeko, eskerrik asko!

Gustura eta pozik goaz helburua bete dugulako.

Legazpin hiri-hondakinak murrizteko eta modu egokian kudeatzeko lanekin jarraitzeko konpromiso partekatutik abiatuta, hobetu daitezkeen alderdiak antzeman ditugu elkarrekin eta zehatzago aztertu eta findu beharko diren proposamenak jaso ditugu.

**Eskerrik asko, atsegina izan da!** Datorren abenduaren 10ean, 2015eko azkeneko tailerra egingo dugu eta zain izango gaituzue.

Ordura arte, ongi izan!

**Mila, mila esker!**